

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko uztailaren 16a / 682. zenbakia

DANTZA ERAKUSTALDIA

LORE GAZTEAK TALDEAREN ESKUTIK, MONTERRONEN



ORAIN ETA HEMEN: SALTOKIEN GAINEKO ARAUDIA/7 • KIROLA: MARI JOSE GIL/8

ARGAZKIA: LORE GAZTEAK

GREMIOEN GIDA/20

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 16
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

ZAPATUA, 17
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99

DOMEKA, 18
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

ASTELEHENA, 19
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

MARTITZENA, 20
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

EGUAZTENA, 21
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99

EGUENA, 22
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

EGUBAKOITZA, 23
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

Arrasate
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILERAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:00 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)

Uribarri parrokia
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:30 (elebiduna)

San Andres eliza
Zapatua 10:00 (euskaraz) 19:00 (elebiduna)
Domeka 12:30 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza
Zapatua 20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka 12:30 (gaztelaniaz)

Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:00 (elebiduna)

OHARRAK

SANTA MARINAKO JAIK
Gaurtik, egubakoitza, domekara arte, Santa Marinan jaiak egingo dituzte. Gaur, txokolate-jana, mariachiak eta diskojaia izango dira. Bihar, pilota, bolo eta mus txapelketak, Gorriti eta bere animaliak, erretiratuaren bazkaria, pailazoak eta dantzaldia. Domekan, jolasparkea, fanfarreak, dardo txapelketa eta dantzaldia.

MAALAKO JAIK
Eguenean, hilaren 22an, eta domekan, hilaren 25ean, Maala kaleak jaiak ospatuko ditu. Eguenean, ume jolasak, txokolate-jana, herri-afaria, dantzaldia eta suzko erruberak. Domekan, meza eta erretiratuendako luntxa izango dituzte.

FILMAK, MONTEIRONEN
Datorren egubakoitzean, hilaren 23an, *Atún y chocolate* filma emango dute Monterronen, doan. 22:30ean izango da.

UDALEKUEN AGUR JAIK
Datorren egubakoitzean, udaleku irekietako agur jaiak egingo dute.

DANTZA ERAKUSTALDIA
Eguaztenean, hilaren 21ean, Lore Gaztearen erakustaldia, Monterronen.

AEDrenAGENDA

EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA
Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.

KULTUR ERROTA
Gaur, egubakoitza, Rafa Ruedak kontzertua egingo du Ferreríasko plazatzon, 23:00etan. AEDk eta Kultur Errotak antolatuta.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Hainbat langile ibaia garbitzen ibili ziren

Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, langile talde bat Deba ibaia garbitzen ibili zen. Ibaietako zaborrak jasotzeaz gain, adar, sasi eta enborrak ere kendu zituzten. Bataz beste, egunean 75 metro garbitu zuten, eta Deba ibaia EAEkoen artean garbitzeko zailena zela esan zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Gorraize”



Gorraizia.
— Zer, lanerako esaten jatzunian gorraizia eirre jatzu?

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Astelehena, 12 **8 °C**

MAXIMOA
Martitzena, 13 **24 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **2,5 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|----------------|-------|-------|----------|
| Eguaztena, 7 | 21 °C | 12 °C | - l/m² |
| Eguena, 8 | 20 °C | 9 °C | - l/m² |
| Egubakoitza, 9 | 24 °C | 8 °C | 1,6 l/m² |
| Zapatua, 10 | 21 °C | 13 °C | 0,9 l/m² |
| Domeka, 11 | 20 °C | 14 °C | - l/m² |
| Astelehena, 12 | 22 °C | 8 °C | - l/m² |
| Martitzena, 13 | 24 °C | 9 °C | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



‘El periódico de Alava’-ko zuzendaria

Asteburu honetan ere, astean irratian izan dugunaren laburpena entzuteko aukera izango duzue, eta besteak beste, *El Periódico de Alava*-ko zuzendaria izan den Felix Iriarteren hitzak berreskuratuko ditugu.

Uztailaren 9an argitaratu zuten aipatu egunkariaren azken alea, diru arazoak direla-eta atak itxi aurretik. Iriarte Aretxabaletakoa da, baina Gasteiz izan du lantoki aspaldiko urteotan; besteak beste, *Euskaldunon Egunkaria*-n ere egin du lan.

Oporretarako proposamenak

Uztailaren 23an, Arrasate Irratiak oporrak hartuko ditu. Baina mikrofonoak itxi aurretik, udarako proposamenak egingo dizkizuegu eta hainbat opari zozkatuko ditugu. Horien artean, Andoni Urtzelai aretxabaletarrak idatzi berri duen *Zirkulua*, udan lasai-lasai irakurtzeko liburua. Eskuratu gura izanez gero, betiko moduan, 943 71 17 31 telefonora deitu besterik ez duzue. Baina horretaz gain, kamisetak, diskoak eta beste hainbat sorpresa ere oparituko ditugu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko elkarrizketak:** Felix Iriarte; Maider Gonzalo, fisioterapeuta; Maider Arregi, autoen gaineko aholkueza; Nerea Mendizabal, umeendako masaje ikastaroaz...

DOMEKA
10:00 **Asteko elkarrizketak.**

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

09:00-11:00 **UDA GIROAN**
Albisteak.
Elkarrizketak.
Erreportajeak.
Estilismoaren tarteak.
Hondartzak, igerilekuak eta urtegiak.
Eguraldi iragarpena.
Txatxilipurdiren udalekuak.
Zozketak, zorion-agurrak.

11:05 **Musika**

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:15 **Izarren ordua.**

13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**

14:00 **UDA GIROAN errepikapena.**

19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu fabriketan alkohola prohibidutie?



JESUS OLEAGA
Langillie



KOLDO ALTUNA
Langillie



JOSEBA LASA
Langillie



MIREN VILLAR
Langillie



INOCENTA FERNANDEZ
Langillie



LOURDES ORUNA
Langillie

Oso ondo pentsetan jat, dudu barik gaiñera. Lanien kontzentraute egon biher dogu eta batzuek ez daue kontroletan zenbat edaten dauen. Neuk uste dot neurri ona dala.

Neuk txarto ikusten dot. Gauzak prohibiduten hasten bagare beste gauza asko dauz prohibiduteko. Gaiñera, gutxi batzuen kulpagaittik jente askok ordaindu biherko dau.

Neurri gogorra dala uste dot. Txikito bat edo zerbeza bat hartziagatik ez da ezer pasetan, eta hori be prohibidutie... Beste batzuk, baiñe, pasau egitten die-eta...

Ez dakit ba. Lanan arabe-rakue dala esango neuke. Edan ezkerro zeure lana txarto egin biher badozu neurri ona da. Bakoitzak jakin biher dau edan biher dauen edo ez.

Neuri oso ondo pentsetan jat. Gauza bat da apurtxo bat edatie eta beste gauza bat da fabrikatik zihero mozkortute urtetie, eta hori neure begixekin ikusi dot. Hori oso peligrasue da.

Neurri baten ondo dauela uste dot. Pertsonie kapaza izen biherko litzake jakit-teko zenbateraino edan biher dauen. Problemie da asko ez diela kapaz mugie nun dauen jakit-teko.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK GALTZADA-HARRI ARRISKUTSUAK Aurreko baten ere aditzera eman genuen herriko hainbat galtzada-harri solte daudela eta euria egiten duenean, horiek zapalduz gero, blai gelditzeko arriskua dagoela. Baina kontua da oraingoan irakurle batzuek jakinarazi digu-tela lagun bat baino gehiago solte dauden galtzada-harrien erruz lurre-ra jausi dela. Hemendik eskaera: konpon ditzatela lehenbailehen!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 6

KIROLA / 8

GAZTEAK / 13

Akei erraustegia

Bide onetik doaz Akei erraustegia berreskuratzeko lanak. Zazpi hilabetean bukatuko dituzte.

Mondrakoak lanean

Astelehenean egin zuten aurkezpena, eta datozen asteetan entrena-menduak egingo dituzte.

Ozen taldeari elkarrizketa

Aspaldian zeresan handia ematen dabilen Ozen musika taldeari elkarrizketa egin diogu.

ASTEKODATUA

600

EURO, ESKLerosi ANIZKOITZAREN ALDE

Toki Argi elkarteko boluntarioek 600 euro batu zituzten domekan, esklerosi anizkoitzaren aldeko ekimenean. Musakolako igerrilekuan egin zuten, baina eguraldiak ez zuen lagundu.

BESTE EKESANA

“

'Edukazio' onekoa omen da jende ezezagunari norbere burua aurkeztea.

Halaxe dio behintzat

nire amak. Eta lerro batzuetan bada ere, nire burua aurkeztuko dizuet, labor, hemendik aurrera gehiagotan jasan behar izango dituzue nire testuak eta. Hogeita bat urte ditut, eta gipuzkoarra naizen arren. bizkaieraz hitz egiten dut. Zuzenbide ikasketak egiten ari naiz lbaetan. Hiri honetatik gustatzen zaidana da Easo plazako pilotaleku txikia, Egiako txoko batzuk, Sagueseko horma... Ez zait gustatzen, ordea, polizia mordoia, etxeen alokairuen prezioa eta bereziki gorroto ditut autobusetan jarri dituzten telebista berriak. Hlauek ikusita, badirudi norbaiti kezkek sortzen dizkiola jendeak hitz egiteak (...)"

ENEKO BARBERENA
'IRUTXULO'/04-07-09

HERRITARREN BERBAK/ Antton Mendizabal



Oihane kartzelan eraila

Gezi pozoiduna balitz bezala eman ziguten albistea: 31 urteko emakume gaztea urkatua agertu da kartzelako ziegan... Boterearen aldeko kazeta erraldoi horiek aipatzen dute albistea: ustezko terroristak batek bere buruaz beste egin duela Frantziako espetxe batean. Jakina, ustezko terroristak hori askatasunaren aldeko, duintasunaren aldeko eta justiziaren aldeko borrokalari politikoa izan da. Euskal herritarren eremu zabalean emankortasuna, sentsibilitatea eta herriarekiko maitasun gehien duten jende horietarikoa.

Eta hori da, Estatu zapaltzailearen aldekoek onartu ezin dutena. Horregatik, desitxuratu behar dute zapalkuntzaren aurka matxinatutako jendea. Espetxeratu behar dute horrelako jendea. Baina ez da nahikoa. Horrelako jendea deuseztatu egin behar da, baztertu, txikitu, zoratu, sakailatu. Eta hori da, hain

zuzen, Oihane urkatua agertzearen arrazoia.

Eta gertaera hauekin ikusten dugu Euskal Herriko benetako diagnosis. Estatuaren biolentziaren monopolioa kuestionatu ez duten talde bakezaleak. Beraien bidai eta zilborrei begira soilik, dagoen errealitatea ikusi nahi ez duten aurrerakoiak. Inperioaren zapalkuntza eta hemengo apartheid-aren garrantzia gutxiagotzen duten ezkerreko sektoreak. Herexek bihurtuz, biziraun egiten duen bertako erresistentzia.

Auschwitz bizirik gelditu zirenek kontatu diguten bezala, horrelako egoeratan ikusten dira pertsonen portaera desberdinak: gizakion miseria eta edertasuna. Batzuen ausardia eta besteen kolaborazionismoa. Koldarkeria eta balentria. Saldukeria, hipokrisia eta duintasuna. Oihaneren erailketak erakusten digu argi eta garbi gure benetako egoera zein den.

"Gertaera hauekin ikusten dugu Euskal Herriko benetako diagnosis. Dagoen errealitatea ikusi nahi ez duten aurrerakoiak"

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

MUK liburua argitaratu du

Mondragon Unibertsitateak mugaz gaindiko errealitatearen alderdi legalei, fiskalei eta zibilei buruzko liburua argitaratu du. MUK jardunaldi bat antolatu zuen ikasturte hasieran Baiona-Donostia mugaz gaindiko agentziarekin, eta Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko partzuergoarekin elkarlanean. Eta jardunaldi horren gainean argitaratu du liburua. Liburu horretan, mugaz gaindiko harremanetan sortzen diren arazoak gainditzeko bideak ematen dira.

Turismo kanpaina gertu

Debagoieneko Mankomunitateak dagoeneko gertu dauka udako turismo kanpaina. Kanpaina hori ibarrean geratuko diren eta kanpotik datozenendako dago zuzenduta. Hala, urtean zehar zabalik izan diren Oñatiko eta Leintz Gatzagako turismo bulegoek gain, Bergarako ere ireki dute uda parterako, eta informazio puntu bat egokitu dute Arantzazun.

Turismo bulego horiek guztiek goizez eta arratsaldean egingo dute lan. Domeketan, berriz, goizez bakarrik eskainiko die bisitariari arreta zerbitzua.

Autoeskoletan lanuztea

Eguaztenerako ELA eta LAB sindikatuek autoeskoletan lanuztea deitu zuten, lan hitzarmena sinatzeko negoziazioa etenda dagoelako. Otsailean hasi ziren negoziaketetan, baina martxoan bertan behera geratu zen aurrez egindako lana.

Eguazteneko deialdiari dagokionez, Arrasateko autoeskolakoek azterketak egiten dituzten herrietara joateko asmoa zeukaten, azterketak normal egitera. Hala ere, Peñakobako autoeskolako langileek, Azpeitira joatekoak baziren ere, ez zeukaten asmorik azterketarik egiteko, protesta modura. Esan beharra dago autoeskoletan lanuzteak ibarrean ez duela oso jarraipen handirik izan.



Esklerosi anizkoitzaren alde

Busti zaitez izenburupean, esklerosi anizkoitzaren aldeko kanpaina egin zuten asteburuan Musakolako igerilekuan. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, 30 lagun inguru animatu ziren uretara sartu eta ekimenaren alde igeri egitera. Kiroldegi kanpoan kamisetak saldu zituzten.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Erlaxatu bariko alderdia

Udako oporrak ia gainean dauzkagu eta orokorrean, sasoi honetan, gauzak beste aurpegi batekin ikusten ditugu.

Zoritzarrez, Euzkadi Buru Batzarra ez da erlaxatu, ez du horren asmorik. Jakingo duzuen moduan, Lizartzako udal hauteskundeetako EAJren hautagai Joseba Egibarrek legez kanporatutako Axurdario

plataformari EAJk eskuratu dituen zazpi zinegotzietatik hiru uztea erabaki du. Kontua lehendik dator: aipatutako hauteskundeetan plataformak horrek botoen gehiengoa eskuratu zuen, baina EAJk alkatetza eskuratu zuen. Egibarrek erabaki hori hartu zuen lizartarren borondatea kontuan hartuta, baina alderdiko buruzagiek ez diote hori egiten utzi.

Horren ondorioz, kexa handiak egin dizkiote EBBari, aurkakoa esan arren, Alderdien Legearen alde egiteagatik. Ea opor ostetik freskatuago datozen!

Zuei irakurleoi, gomendio bat. Oporretan merkatu txikirik ikusten baduzue, merezi du begirada on bat ematea. Astean ingeles batek Australiako merkatu baten maleta zahar bat erosi du, eta barruan Beatles-en argitarabarik grabazioak aurkitu ditu. Aberastu da.

ASTEKO IRUDIA



IKER BARANDIARAN

UMEAK BARRA-BARRA KALEAN, UZTAILEKO UDALEKUETAN

Uztailero, Txatxilipurdik udalekuak antolatzen ditu. Aspaldi honetan, udaleku itxiak ere egiten dituzte, baina ezagunenak udaleku irekiak dira. Irekiak Arrasaten egiten dituzte, eta hilabete honetan ehunka ume ibiltzen dira kalean jolasten eta edonolako ekintzak egiten. Eguraldia lagun badute, ige-

rlekura, Azoka plazara, Gazteluondora eta beste hainbat lekutara joaten dira. Begirale piloak ibiltzen dira eurekin jolasten eta, batez ere, umeen kargu egiten. Umeak poz-pez ibiltzen dira, esaerak dioten moduan, txapela buruan eta ibili munduan. Uztailearen 23an, agur jaia egingo dute. //B.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

ARRASATEKO ALDI-TRANS NAGUSI, GASTEIZ CUP-EN

Aurten ere Arrasateko futbolari gazteek erakutsi dute Arrasaten jokalarionak daudela kategoria txikietan. Gasteiz Cup txapelketa amaitu berri dute, eta Arrasateko Aldi-Trans taldea gailendu da B-12 kategorian. Argazkian azaltzen diren gazteek, besteak beste, Ariznabarra eta Emf Alovera talde arabarren kontra jokatu behar izan zuten, eta talde horiei irabazita iritsi ziren finalera. Finalean, arrasatearrek 2-1 irabazi zioten Ibaia taldeari. Aldi-Trans taldea ez da, baina, Arrasateko Gasteiz Cup-en izan duen ordezkari bakarra, Solano eta Joma Athletic taldeak ere txapelketan izan dira. Joma taldea, gainera, B-11 mailan txapeldunorde izan da. Finalean, 1-0 galdu zuten Indartsuak taldearen kontra.



EZ DA BENIDORM, BAINA HARO EZ DAGO BATERE TXARTO


Uztaileko lehenengo aste bukaeran egin zioten ezkon aurreko agur bazkaria Cesar Azkarate Zela-ri, Benidormeko baywachiari. Cesar eta koadrilakoak Haron ibili ziren, argazkian azaltzen diren *domingero* itxura horrekin (eskerak Errioxan hondartzarik ez dagoen, ala bai?). Goizean goizetik hasi ziren txikiteoan, eta ardozaleak badira ere, arratsalderako garagardora pasatu ziren, errazago edaten da-eta. Erretegi batean bazkaldu zuten, eta bazkalostean Cesar jo eta sua ibili zen lanean, Monteko porrarako taldeak egiten. Hori da zaletasuna hori! Gainontzeak lan hori egiteko moduan egongo ote ziren? Irailaren 4an ezkonduko da Zelaitxotarra. Koadrilakoen partetik, zorionak!!!



ENUZKETAKO AMONAREN URTEBETETZE EGUNA

Ekainaren 27an, 95 urte egin zituen Prudentzik Enuzketako amonak. Eta, argazkian ikusten denez, familia osoa elkartu zen amonaren urtebetetze eguna ospatzeko. Goiz partean Santa Agedako elizan meza entzun eta gero, Arteaga

jatetxean izan ziren bazkaltzen. Bazkalostean giro ederra izan zuten, biolin kontzertu eta guzti. Eta, kontzertua bukatu eta gero, senitartekoek lore sorta opari egin zioten amonari. Horrelako ospakizunekin nork ez ditu gura 95 urte?



Dagoeneko bota dute garajearen eraikin zaharra; Eskoriatzan gorde dituzte behin-behinerako han egoten ziren kamioiak.

HIRIGINTZA/ Akei erraustegia berritzeko lanak

Bide onetik doaz Akei erraustegia berritzeko lanak

UBANE MADERA

Eraikuntzako langileen grebaren eraginez, hilabete beranduago hasi zituzten Akei erraustegia berritzeko lanak. Orain, bide onetik doaz. Aurreikuspenen arabera, zazpi hilabeteko epea dute bukatzeko. Besteak beste, bota egin dute garajearen eraikina.

Arrasateko Udalaren, Mankomunitatearen eta Ihoberen artean hitzarmena sinatu zuten Akei berritzeko. Hala, Mankomunitateko

teko Ingurumen zerbitzuburu Mikel Jaiok jakinarazi digunez, oro har, zaborteziaren itxura moldatu egingo dute, oraingo maldakapur bat samurtzeko. Horrekin batera, goiko aldean lurra babesteko geruza bereziak ipiniko dituzte. Geruzek galerazi egingo dute euri-urak barrura sartzea eta ez da kutsatzeko arriskurik egongo. Horren harira, Mikel Jaiok esan digu edozelan ere Akeiko lurrek ez dutela arriskurik, Ihebek egoera ikertu zuela eta ikusi zuela hondakinak zaharrak izanda nahikoa "garbituta" daudela.

Zaborteziaren lanak egiteaz gain, Akein dagoen garajearen eraikina bota egin dute. Hala, han gordetzen zituzten kamioiak Eskoriatzan dituzte orain. Gero, Makatzenako pabilioi batera ekarriko dituzte, eta Akeiko lanak bukatu ostean erabakiko dute behin betiko non gordeko dituzten.

Eta transferentzia plantaren gainean, berriz, Mikel Jaiok adierazi digu dagoenetan utziko dutela, hau da, ibarrean batzen den zaborra han gordetzen segiko dute kamioietan sartu eta Sasietara eraman aurretik.

Santa Marina auzoan, jaiak

Gaur, barikua, hasiko dituzte Santa Marinan jaiak. Besteak beste, gaur gauean maria-chiek kontzertua egingo dute. Berriz, bihar, goizetik gauera arteko ekitaldiak izango dituzte Santa Marinan. Esaterako, bolo-palma txapelketa jokatuko dute 11:00etan eta 17:00etan; partxis, mus eta mahai-futbol txapelketak jokatuko dituzte arratsaldean eta pilota partiduak izango dira goizean zein arratsaldean. Eta domekan, adibidez, umeendako jolas-parkea izango da goizean eta arratsaldean. /U.M.

San Josepe harrobiaren auzia Eudeli helarazi diote

U.M.

Ezker Batua-Berdeak alderdiak San Josepe harrobiarekin lotutako gutuna bidali dio Eudeleko presidenteari. Besteak beste, Udalaren autonomia defendatzeko neurriak hartzeko eskatu dio.

Ezker Batua-Berdeak alderdiak San Josepe harrobiaren gaineko egoera azaldu dio Eudeleko presidente Karmelo Sainz de la Mazari. Gutun horretan gogora arazten dute harrobia itxita egon beharko litzatekeela joan den apirilaren 27az geroztik eta inguru guztia bere onera ekarri ta egon beharko litzatekeela ordurako. Era berean, Eudeleko presidenteari jakinarazi diote udalbatzarrak hartu zuela harrobia itxeko erabakia; eta baita ere itxiera agindua kontuan hartu barik, Jaurlaritzako Meatze Sailak leherketak egiteko baime-na eman ziola harrobiari.

ERABATEKO ERANTZUNA GURA

Horren guztiaren aurrean, EBk gura duena da Eudelek Arrasateko Udalaren autonomiaren defentsaren aldeko neurriak hartzea. Zera diote gutunean: "Gutxienez, espero dugu Eudelen erantzuna erabatekoa izatea; babes-ofizialeko etxebizitzekin lotuta, Eudelen eta Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren artean egondako ika-mikan Eudelek hartu zuen erabateko erabakiaren modukoa".

NOIZ ARTE HORRELA

EBko ordezkari Ander Rodriguezek adierazi digunez, harrobiaren gaia geldi dagoela ikusita erabaki dute Eudeli gutuna bidaltzea. Hala, besteak beste, harrobiaren kontrako neurri zigortzaileen bat hartuko dutela espero du alderdi politikoak. Jakinarazi digu San Josepen lanean jarraitzen dutela; hori bai, oraingoz, behintzat, ez dutela bestelako leherketarik egin.

Egun osoko lanuztea egingo dute udaletxean

U.M.

Datoren eguaztenean, hilak 21, egun osoko lanuztea egingo dute udaletxean. Hala jakinarazi digute lan-hitzarmenaren alde protestan dabiltzan langileek. Ez dute onartzen CCOOrekin sinatutako hitzarmena.

Udaletxeko langileek iragarri zuten ez dutela onartzen Arrasateko Udalak adostutako lan-hitzarmena (Eudelek proposatutakoa, CCOO sindikatuarekin negoziatu ostean) eta protestan segituko zutela iragarri zuten. Hala, oraingo astean jakinarazi digute eguaztenean, hilak 21, egun osoko lanuztea egingo dutela. Hortaz, gogoratu ezazue egun horretan ez dutela beteko herri-tarrendako arreta zerbitzurik.

NEGOZIAZIOA EZ DA POSIBLE

ELA, LAB eta ESK sindikatuek bidalitako prentsa oharrean adierazi digutenez, udal ordezkari politikoek udal autonomia alde batera utzita erabaki dituzte Arrasateko langileen lan baldintzak.

Salatzen dute ezin dela eurekin negoziatu eta ez dituztela langileen proposamenak entzun gura. Besteak beste, negoziazio-mahaia eratzea eskatzen dute, Elgetan egin duten moduan. Eta horretaz aparte, ordezkari politikoak gonbidatzen dituzte herri-komunikabideetan mahai-ingurua egitera.

Era berean, hiru sindikatuek gogora arazten dute langileek ez dutela diru gehiago eskatzen, baizik eta dirua hobeto banatzea, gutxiak duten langileen baldintzak eta familia zaintzak hobetzea gura dutela eta azpi kontratazioa erabili beharrean, zerbitzu publikoan bertako langileak erabiltzea.

GUTXIENKO ZERBITZUAK

Udalaren izenean, berriz, Inazio Lakuntza alkateak Arrasate Irratiari jakinarazi dio gai horretan euren aldetik ez dagoela berritasunik, eta oraingo, ez dutela negoziazio-mahairik osatu. Langileen lanuzteen gainean, berriz, adierazi digu grebak egiteko eskubidea dutela eta zerbitzu minimoak betetzen dituzten bitartean ez dela bestelako arazorik izango.

LABUR

Arrasateko emakume bat hil da Burgosen izandako auto-istripu batean

Joan den domeka arratsaldean, 64 urteko AFA emakumea hil egin zen Burgosen izandako auto-istripu batean. Espainiako Trafiko Zuzendaritza Nagusiak adierazi digunez, Donostiako eta Bilboko matrikuladun auto bik elkar jo zuten Burgosko Quintanapaya herritik gertu, AP-1 autobidean. Istripuaren ondorioz, bi lagun hil egin ziren eta beste bi lagun larriki zauritu ziren.

Saltokiek produktuak kalean erakustea arautu gura du Udalak

UBANE MADERA

Zenbait saltokik euren produktuak kalean ipintzea arautuko du Udalak. Txosten bat egin du Udaltzaingoak halako egoeren gainean. Eta txostena aztertu ostean, Udalak erabaki du, besteak beste, janari-dendek ezin izango dituztela euren jakiak kalean erakutsi.

Kaleko leku askotan, saltokiek espaloien edo kalearen zati bat aprobetxatzen dute euren produktuak erakusteko edo oztopak ipintzeko (lorontziak) saltokien aurrean ibilgailuak aparkatu ez dezaten. Fruta-dendek fruta-kaxak ipintzen dituzte kalean, bidai-agentziek esku-orriak, kioskoek aldizkariak eta egunkariak, loradendek landareak... Hain zuzen ere, jardunbide horien guztien gaineko txostena aurkeztu du Udaltzaingoak. Eta Tokiko Gobernu Batzarrak oraingo astean aztertu du txosten hori.

JANARI-DENDEN KASUA

Hala, batetik, Udaltzaingoaren txostenak dio fruta-denden edo bestelako janari-denden kasua gainerako kasuekiko desberdina dela. Izan ere, legeak dio kalea ezin dela erabili halako produktuak erakusteko edo gordetzeko. Gauzak horrela, Udaltzaingoak proposatu du janari-saltokiek erretiratu egin beharko lituzketela jakiak kaletik, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartu egin du proposamena. Horrenbestez, eta beharrezko bürokrazia pausoak egin eta gero, herriko janari-dendek laster jasoko dute euren produktuak kaletik erretiratzeko alkatetzaren agindua.

BAIMENA ESKATU BEHAR

Bestetik, txostenean proposatu dute behe-barruetan dauden saltokien kasuan, hemendik aurre-



Araudia indarrean jartzen denean ezin izango dira jakiak kalean erakutsi.

ra, Ordenantza Fiskalek arautu beharko dutela kalearen erabilera. Hau da, erabilera hori baimendu egingo dute, beti ere, saltokiek arau jakin batzuk betetzen badituzte.

Hala, hasteko, kalea erabiltzeko baimena eskatu beharko diote saltokiek Udalarari. Gero, Udalak baimenak banan-banan aztertuko ditu. Azterketa horretan, adibidez, kontuan hartuko du saltokiak zenbateko kale zatia erabili gura duen eta baita ere, erabilera horrek zein eragin izango duen oinezkoendako pasabidean. Horren oste-

an erabakiko du zein saltokiri eman baimena eta zeini ez.

APARKATZEA GALARAZTEKO

Eta horrekin batera, ibilgailuak saltokien aurrean aparkatu ez dezaten lorontziak ipintzen dituzten kasua ere aztertu dute. Maalako Errebalean daude halako zenbait adibide. Hala, txostenak ez du zehazten oztopo horiek derrigor kendu beharko diren edo ez, baina, bai zehazten du Udaltzaingoak arreta handiagorekin zaindu beharko dituela gaizki aparkatutako ibilgailuak.

LABUR

Uda ostean hasiko dira Musakolako autobus-geltokia berritzeko lanak egiten

Musakolan dagoen autobus-geltokia berritzeko lanak egingo ditu Udalak. Kontua da, batetik, espaloian putzuak sortzen direla; eta bestetik, zoladuraren egoera ez dela ona. Hala, berritzeko lanen barruan, Udalak orain dagoen irlatxoa kendu egingo du, dena errepidearen mailara uzteko, eta gainerako tartea berritu egingo du. 22.000 euro pasatxoko aurrekontua aurreikusi dute lanok egiteko, eta Udalaren asmoa da uda baino lehen esleitzea. Edozelan ere, jakinarazi digute uda ostean hasiko direla lanak egiten.



Eguenean eta domekan, Maalako jaiak

Datorren astean, Madalenak ospatuko dituzte zenbait lekutan, tartean, Arrasateko Maalako Errabalean. Bi egunerako egitaraua prestatu dute. Hala, eguenean 08:00etan etxafuegoak jaurtiko dituzte; 17:00etan ume-jolasak egingo dituzte eta horren ostean, txokolatada. 19:00etatik aurrera, berriz, txikiteoa izango da; 22:30ean hasita dantzaldia eta 23:00etan, suzko erruberak. Eta bigarren egunean, domekan, 12:00etan auzoko hildakoen aldeko meza esango dute San Frantzisko elizan eta horren ostean luntxa emango diete erretiratuei, Plus-Ultra tabernan. /U.M.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

BEHEKODENDATIK

Aitor Medrano

ABOKATUA

XABIER URZELAI

Aitor Gasteiz eta Mondrague artien ibiltten da lanien. Bost urte daroie lanbide horretan, eta azkeneko sei hilabeteiek bere kontu egin dittu. Aitorrek esaten dauen moduen, abogaue izenda lana ondo egitteko bokaziñue euki biher da, bestela gogorra egitten da-eta.

Ze falta jako Mondragueri?

Nahiko konpleto dauela uste dot; ekintza kultural gehixau.

Eta, ze dauko ona?

Dauen ambientie eta inguruen dauzen parajiek.

Ze falta jatzu zeuri?

Batzuetan, denpora librie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Batzuetan, tensiñue.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Marx anaien eta Woody Allen-en pelikulak gustetan jat / *Sexus*, adibidez / Musika baltza gustetan jat: reagea, bluesa, rock-and-rolla be gustetan jat...

Momentu honetan nora juen-go zitzake gustora?

Galiziara noie laister, eta oso gustora juen biher dot.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Gutxi egitten dot; oin hasi biherko dot serixotasun haundixauekin.

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?

Ametsetan... (Barriek).

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Bokaziñue eukittie.

Denpora librien ze egitten dozu?

Lagunekin egon, musikie entzun...

Kapritxo bat.

Gintonik bat hartzie lagun artien.


Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Sara, Iparraldien.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Pakie dauela, bai munduen eta baitte Euskal Herrixen be.

Zelako kasuek erueten dozu?



"Lanbide honetan, batek irabazteko bestiek galdu egin biher dau; eta, klientie dau erdixen"

Jeneralien kasu zibillak eta merkantillak erueten dittut, baitte penalak be. Akzidentietako reklamaziñuek, enpresei reklamaziñuek... Eta bikotien arteko separaziñuek baitte be. Jeneralien hola-ko kasuek erueten dittut.

Ez dauko zuen lanbidiek izen oso ona.

Ez, eta kasu batzuetan arrazoiekin izengo da. (Barre). Baiñe pentsetan dot hori apurka-apurka kanbixetan doiela. Egixe da, baiñe, lanbide honetan batek irabazten badau bestiek galdu egitten dauela, eta galtzen dauenan klientie ez da oso pozik geraketan. Geure lanak daukon gauzak die horreik.

"Klientiei ez badutzezu siñisketan, hobe da argi esatie, bestela errexa da-eta kasue galtzie"

Ze sentiduten da siñisketan ez dutzezu kliente bat defendidu biher dozunien?

Hori pasau ezkerro, hobe da ez defendidutie. Klientiei argi esan biher jako ez daukola arrazoirik, eta galtzeko aukera haundixek eukiko dogule. Motzera dirue galtzen dozu, baiñe luzera hobe da.

Kasu bat irabaztiagaittik hartu dozun poztasun haundixena?

Behin, mediku bat defendidu neuen. Leporatzen eutzien lana ez euela ondo egin, eta demostrau geuen kulpie ez zala berie izen. Kasue irabazi egin geuen eta oso pozgarrixen izen zan. Holako kasuek oso politte die, baiñe baitte responsabilidade haundikuek be.

NIREBIDAIAHURA/ Maialen Egues

Grezia / 2004ko otsailetik ekainera arte

Bost hilabete Grezian egin eta azkeneko hilabetean hasi zen Maialen eskolak hartzen: "Kostatu zitzaigun, baina azkenean irakasle batzuek onartu ziguten euren eskolan egotea, eta hilabete eman genuen horrela. Egia esan, Grezian ez dut askorik ikasi". Lagunek bisitatu eta gero, familiakoak joan ziren Greziara. Lehenengo ama eta amona etorri ziren, eta eurak itzuli zirenean anaia etorri zen bisitan. Anaiarekin hainbat irteera egin nituen, baina bere kontura ere ibili zen. Hamar egun egin zituen han, eta besteak beste, Olinpo mendian izan zen, eta ni, adibidez, ez naiz han izan. Ordurako, gainera, eskolan hasita nengoen".

Greziaren egonda, Bulgaria ondo-ondoan zeukaten, eta hara ere egin zuten bidaia: "Ekonomikoki alde handia dago Greziaren eta Bulgariaren artean. Bat baino gehiago zabor artean ikusi nuen zer bait topatu guran, eta jende asko zebilen diru eske. Bi egun baino ez genituen egin Bulgarian, eta bidean Greziako bigarren hiri-burutik, Tesalonikatik, pasa ginen. Ez ginen luzaroan egon, sekulako beroa egiten zuen-eta".


Bulgariatik bueltatu eta gutxira etxera itzultzeko ordua iritsi zen: "Gustura egon haiz Grezian, nahiz eta hasierako hilabeteak gogorrak izan. Atenas ez da batere polita, baina orokorrean Grezia bisitatzeko moduko lekua da, oso paraje ederrak daude-eta. Hori bai, azkeneko posible da horrenbeste harri eta hondakin ikusteaz aspertuta amaitzea. Greziako bizilagunei dago kienez, jende oso jatorrarekin egin dut topo, eta ez dut inolako arazorik izan. Hori bai, patxada handia daukate, eta bizitzarekiko beste ikuspuntu bat". Badirudi oportetarako Grezia aukeratu duzuenok asmatu egin duzuela.



"Grezia eta Bulgariaren artean alde ekonomiko handia dago"

"Grezia oso irekiak dira, jatorrak; eta patxada handikoak"

XABIER URZELAI



Maialen eta anaia, Milos uhartean ateratako argazkian.



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ATLETISMOA

Urrezko bi domina ekarri ditu Maria Jose Gilek Espainiako Atletismo Txapelketatik

Sevillan egin duten Espainiako Atletismo Txapelketan atleta arrasatearra lehena izan da 1.500 eta 5.000 metroko lasterketan

XABIER URZELAI

Astlehenean iritsi zen Maria Jose Gil Sevillatik. Asteburu gogorra izan badu ere, merezi izan du Sevillaraino joatea, urrezko bi domina ekarri ditu-eta. Zapatuan, 5.000 metroko lasterketan azkarrena izan zen; eta domekan, 1.500 metrokoan ez zuen kontrariorik izan.

Ekainean Durangon egindako markak hobetzeko asmoz joan zen asteburuan Maria Jose Gil Espainiako Txapelketara: "Gizonak esaten zidan Durangon egindako markak hobetu egin behar nituela, eta pozik etorri naiz, urrezko bi domina eskuratzeaz gain marka horiek hobetu egin ditudalako". Joan den astean Arrasateko atleta gazteek Huelvan beroarekin zenbat sufritu zuten kontatu genuen, eta asteburuan Maria Joseren txanda izan da: "Zapatuko lasterketa 11:00etan egin genuen, baina domekan ordu biak aldera korritu genuen. 40 gradutik gora egiten zituen, eta ni ondo banindotan ere, gizonak esan zidan besoak mugitu ere ez nituela egiten".

MARKA ONAK

Beterano mailako Espainiako Txapelduna da Maria Jose Gil: "5.000 metroko lasterketan 22 minutu eta 42 segundoko denbo-

ra egin nuen, eta 1.500 metroko lasterketan sei minutu eta hamalau segundo behar izan nituen. Horrek esan gura du, zapatuko lasterketan Durangon baino ia minutu bat azkarragoa izan nintzela, eta domekako lasterketan lau segundo gutxiago behar izan nituela. Eta egia esan, ez dut ulertzen, egin zuen beroa ez zen-eta markak hobetzeko aproposena".

OPORRETAN ATSEDEN BARIK

Oporrak gain-gainean daude, baina Maria Josek ez dauka geldi egiteko asmorik: "Gure adinarekin ezin dugu atsedendaldi luzerik hartu, berehala egiten dugu-eta behera. Orain dela gutxi Santiagoko bidea egiten ibili naiz, eta uste nuen horrenbeste kilometro oinez egin eta gero sasoi betean etorriko nintzela. Etxera itzultzerakoan, baina, korrika apur bat egi-tera joan nintzen eta berehala konturatu nintzen gaizki nembilela. Gero esan zidaten oinez ibiltzea eta korrika egitea erabat ezberdinak direla".

Oporretako lehenengo egunak Galizian igaroko ditu Maria Josek: "Entrenatzen jarraitzeko asmoa daukat, eta seguru han inguruan egongo dela lasterketaren bat edo beste. Gainera, handik Malagara joango gara, eta aurten ere Motrilgo lasterketan esku hartzeko asmoa daukat; oraindik ez dut jaso joan den urte-



XABIER URZELAI

Sevillatik iritsi berri harrapatu genuen Maria Jose Gil; atleta arrasatearra nekatuta baina pozik itzuli da.

ko saria". Eta, irailera begira, atleta arrasatearrak Josetxo Imazen memorialean egon gura du: "Aurten ere Josetxoren omenezko lasterketa egingo dute Ordizian, eta urteroko hitzordu bila-

katu da hori. Ez daukat kale egiteko asmorik". Datorren urtean Donostian egingo den Munduko Atletismo Txapelketaren gainean ere egin du berba Maria Jose Gilek: "Esan dezakedan gauza

bakarra da 1.500 metroko lasterketan esku hartuko dudala, baina ondokoak esaten dabilta 800 eta 5.000 metroko lasterketan ere parte hartzeko. Ikusiko dut zer egin, badago-eta denbora".

FOTOKIROLA



Mondraren aurkezpena

Astlehenean egin zuen Mondrak aurtengo denboraldiaren aurkezpena. Arrasateko futbol taldeak datorren denboraldian izango dituen kategoriak aurkeztu zituen, eta taldeek entrenamendu egunak eta ordutegiak zehaztu zituzten. Lehenengo taldeari dagokionez, urte askoan Mondran ibili diren hainbat jokalarik falta ziren, baina aurpegi berriak ere egon ziren. Preferente mailako taldeak hainbat entrenamendu egingo ditu uztaile amaiera arte, eta abuztuko lehenengo hamabostaldian atsedendari hartuko dute, bigarren hamabostaldian lanera itzultzeko. Argazkian, Gasteiz Cup txapelketan irabazle izan diren Alditrans Gasteiz taldekoak, orain Mondran. /X.U.

FUTBOLA

Mondraren batzarra, gaur, Monterronen

Mondrak urteroko batzar orokorra egingo du gaur, 18:30ean, Monterronen. Joan den denboraldiko balantzea egiteaz gain, datorren denboraldiaren aurkezpena egingo dute. Eta kirol zuzendaritzan egin gura den errelebuaren gainean ere egingo dute berba.

BESAIDE

Gipuzkoako Birako VI. etapa egingo dute domekan

Domekan egingo dute Besaideko lagunek Gipuzkoako Birako VI. etapa. Aurrekoan bezala, oraingoan ere kostaldera joango dira. Hala, domekan, Oriotik Zumaiarako ibilbidea egingo dute. Irteera 07:30ean izango da, eta 13:00ak aldera itzuliko dira.



Maalako jaiak
2004

MONDRAGON
Festas de San Juan 1916 - MONDRAGON

Casa Cecíaga

MONDRAGON — Arrabal de la Magdalena Arrasaten 1906. urtetik

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
Tasazioak
Fiskal Aholkularitza
Errentamenduak
Kontratuak

Udalatx
Inmobiliaria

Maalako Errebala, 27 behea. Tel.: 943 79 59 99
udalatx@udalatx.com / www.udalatx.com

ARREGI

MARKOAK
ISPILUAK
MARGOLANAK
LAMINAK

Maalako Errebala 8
20500 arrasate
Tel.: 943 79 56 44

**Plus
Ultra**

T A B E R N A

Maalako errabala 17.
Tel.: 943 79 20 57

UZTAILAK 22, EGUENA

- 08:00etan: Etxafuego jaurtiketa.
- 17:00etan: Ume jolasak eta txokolate-jana.
- 19:00etan: Txikiteoa.
- 21:00etan: Afaria Errabalekoendako.
- 22:30ean: Musika eta dantza.
- 23:00etan: Suzko erruberak.

UZTAILAK 25, DOMEKA

- 12:00etan: San Frantzisko elizan meza, Maalako Errabalean hil diren guztien oroimenez.
- 13:00etan: Kaleko erretiratuendako luntxa Plus Ultra taberna.



 **Barceló Bidaiak**

Maalako Errebala, 31 Tel.: 943 79 70 11



ZURE
HAURTZOAREN
DENDA

Maalako Errabala
Tel.: 943 79 19 14

 **NATUR HOUSE**
Dietetika eta Elikadura

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

Express
KAFETEGIA

Ondo
pasatu jaietan!

Maalako errabala 8.
Tel.: 943 20 00

FOTO

Enrique Martín IMAGEN
FOTO

Maalako Errebala 11 • ARRASATE
Tel.: 943 77 08 62

 **ELKORO**

- Elektrizitatea
- Antenak
- TB, Bideo eta Hifi konponketak

Maalako Errebala 29 • Tel.: 943 79 45 99 / 943 79 18 86

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE



MAE
Bidaiak

Ondo
pasatu
jaiak!

Maalako errebala 23
ARRASATE
Tel.: 943 71 24 16

DANTZA/Euskal Herriko hainbat dantzaren erakustaldia

Eguaztenean, Lore Gazteak taldeak dantza ikuskizuna egingo du Monterronen

IKER BARANDIARAN

Eguaztenean, uztailearen 21ean, Lore Gazteak taldeak dantza ikuskizuna egingo du Monterronen, 22:00etan. Eguaztenekoa urteroko hitzordua bilakatu da, eta umeek eta nagusiek Euskal Herriko hainbat herrialdeko dantzak egingo dituzte, ordu eta erdian.

Lore Gazteak taldeak hamargarren aldiz dantza ikuskizuna egingo du Monterronen. Urtean dantza talde horrek hainbat ikuskizun egiten ditu Arrasaten eta beste herri batzuetan. Monterrogoa, berriz, desberdina izaten da. Plazetan egin beharrean eszenatokibatzen egiteak beste zerbait du: eszenatokiko sarrerak eta irteerak oso bereziak dira, ikusleak ere ez dira betikoak...

Dantzei dagokienez, Euskal Herriko hainbat herrialdekoak egingo dituzte. Mutilek Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat dantzak egingo dituzte; neskek, Igitai Dantza, Esku Dantza... Neskek eta mutilek osatutako talde mistoak, berriz, Nafarroako bi dantza: Cortes eta La Balsa. Umeek eta gazteok ere esku hartuko dute ikuskizunean. Horiek korru dantzak egingo dituzte: Saint Petit, Txulalari...

UMEEN PARTE-HARTZEA

Arrasateko taldeak bi helburu ditu umeen parte-hartzearekin: batetik, umei aukerak ematea; eta bestetik, umeek urtean ikasitako taula gainean erakutsita, garrantzi handiagoa ematen diete dantza horiei. Bi helburu horiek lortzeko, taldeak umeendako muntaia prestatu du.

50 BAT LAGUN LANEAN

Dantzariet gain, txistulariek eta gaitariet ere esku hartuko dute eguazteneko ikuskizunean. Horiez



Aurtengoa da Lore Gazteak taldeak Monterronen erakustaldia egingo duen hamargarren aldia.

gain, hainbat lagunek dantzariak orraztu egingo dituzte eta jantziez arduratuko dira.

Helduen 12-13 bikote eta umeen 10-12 bikote ibiliko dira dantzan. Txikiak bospasei urtekoak izango dira.

Lore Gazteak taldeak asko maitatu du Monterrogo urteroko ikuskizun hori. Bi helburu azpimarratu dituzte: batetik, ikasturte amaieran, herriari zerbait berezia eskaintzea; eta bestetik, ikasturtea Errementari eta Soka Dantzetatik uztaile bukaera arte luzatzea.

Ikuskizun txukun horrek ordu eta erdi inguru iraungo du. Erabiltzen dituzten jantziak oso bereziak dira. Are gehiago, dantza

bakoitzak bere jantzi propioa dauka. Jantziak taldearenak dira, baina lagun talde batek zaindu eta prestatzen ditu.

AURTEN, BERRIKUNTZAK

Taldeko kide Unai Diezek azaldutakoaren arabera, taldeko neskek aspalditik kezkatuta zeuden euren dako moduko dantza-ikuskizunik ez zegoelako. Baina orain dela gutxi liburu bati begira zebiltzala, ikusi zuten Nafarroako Cortes Dantza mutilek eta neskek egiten zutela. Hortaz, aurtengoa, Monterronen dantza hori zortzi mutilek eta zortzi neskek egingo dute. Diezen esanetan, dantza hori oso polita eta ikusgarria da, eta jantzi oso bere-

ziak eramango dituzte. Gainera, aspaldi ez dute hori egin.

Helduen ikasturte arrunta uztailean bukatzen da, eta irailean bueltan berriro lanean hasten dira. Umeena udan gelditu arren, irail hasieran Haurren Egunetara joan behar izaten dute. Horregatik, irailera arte luzatzen dute, eta urrian ikasturte berria hasten dute.

Taldetik kanpo dauden lagunendako egiten dituzten ikastaroak ere urrian hasten dituzte. Urtean bi egiten dituzte: bata neguan, urritik Santamasetara; eta bestea, udaberri aldean. Iaz, azkenean, udaberrikoa ez zuten egin, ez zuelako jende nahikoa

Aurtengoa, Cortes Dantzan neskek eta mutilek osatutako taldeak dantza egingo du

Ibarreko hainbat talde kezkatuta daude, mutil dantzari gutxi daudelako

izenik eman. Irailean hasiko dira hori aztertzen.

MUTILEN PREMIA DANTZA TALDEETAN

Lore Gazteak taldearen baitan umeak eta helduak daude. Umeak adin-ka hiru taldetan banatuta daude. Diezen esanetan, herrian badago dantzari horrobia, baina aspaldian konturatu dira orokorrean, ibarrean, mutil gutxi dabilzala dantzan, eta horrek kezkatzen ditu. "Iaz gure taldean hiru mutil sartu ziren, eta horri esker eutsi diogu, baina inguruko hainbat taldetan arazo bera dute. Mutil gehiagok animatu beharko lukete. Ez da derri-gorrezkoa umetatik ikastea, beti dago horretarako aukera".

Monterrogo ikuskizunaz gain, urtean plangintza jakina dute: Santamasetan, Aratusteetan, ibarreko Dantzari Egunean, San Juanetako Errementari eta Soka Dantza. Horiez gain, herriko hainbat auzotatik eta Akordeoi Lehiaketatik ere deitzen dituzte aurrekoak eta bestelakoak dantza ditzaten.

Bi film emango dituzte Monterronen, doan, uztailearen 23an eta 24an

I.B.

Udaleko Kultura Sailak uztailean Monterronen filmak emateko asmoa zeukan, baina Monterrogo zuhaitz batzuen egoera ez da ona, eta hori konpontzeko, Udalak parkea ixteko asmoa zuen. Kultura Saila erabaki horren zain egon da, eta azkenean asteburu bakarrean emango dituzte filmak.

Datorren egubakoitzean eta zapatuan, hilaren 23an eta 24an, bi film emango dituzte. Biak hala


biak doan, eta 22:30ean. Egubakoitzean, *Atún y chocolate* emango dute; eta zapatuan, *Troya*.

PABLO CARBONELL

Atún y chocolate filmaren zuzendaria —lehenengo aldiz— eta gidoiaren egilea Pablo Carbonell da. Film horrek 100 minutu irauten du. Carbonell oso ezaguna da. Los Toreros Muertos taldeko abeslaria izateaz gain, aktore, telebista aurkezle eta idazlea ere bada. Film hori komedia da. Hiru arrantzaile krisi garai bat bizi iza-

ten dabilza. Hiruretako baten semeak jaunartzea egin gura du, baina gurasoek ez dute dirurik eta gainera ez daude ezkondu. Gauza asko aldatu beharrean egongo dira. Lagun bat, bikoteari laguntzeko, hegalabur bat lapurtzen saiatuko da, baina kontua ez da erraza izango.

Filmeko protagonistak honako hauek izango dira: Pablo Carbonell (*Lo mejor que le puede pasar a un cruasán, Obra maestra...*) eta Maria Barranco (*El oro de Moscú, Manolito Gafotas...*).



Pablo Carbonellek lehenengo aldiz zuzendu du film bat.

ELKARRIZKETA

OZEN/MUSIKA TALDEA

“Laurok 80ko hamarkadako rockarekin eta hard-rockarekin bat egiten dugu”

IKER BARANDIARAN

Aspaldi honetan Ozen musika taldea zeresan handia ematen dabil. Talde horrek lau zepabost urte dituen arren, azkeneko bi urteotan hasi da kontzertuak egiten. Laster diskoa grabatzera sartuko dira, eta gogotsu daude.

Zeintzuek osatzen duzue taldea?

Julen (gitarra eta ahotsa), Iker (bateria), Beñat (baxua) eta Josebak (gitarra).

Noiz bururatu zitzaizuen taldea sortzea?

Orain dela lau zepabost urte hasi ginen, baina oporretan bakarrik elkartzeko ginen, Julen Bartzelonan zegoelako, ikasten.

Zein da taldearen helburua?

Hasieran, helburua zen lokalerara joan, entseatu eta ondo pasatzea. Orain hamahiru kantu grabatu gura ditugu, eta grabazioa lehiaketetara eta diskoetxetara bidali. Julenek Bartzelonako ikasketak bukatu zituenean, taldea serioago hartu genuen. Joseba eta Anger taldeko Beñat sartu ziren.

Zenbat kontzertu egin dituzue orain arte?

Lehen Albertoren agurra izan zen —hark ere Bartzelonara jo zuen ikastera—. Eskoriatzako gaztetxean egin genuen, 2002ko irailean. Gazi-gozo samarra izan zen, bazihoalako.

Horren ostean, Arrasateko gaztetxean birritan jo genuen. Azkeneko orduan elurratik etorri ezin zuen talde bat ordezkatu genuen. Beste baten, Bergaran, Angerko bateria jotzaileak min hartu eta gu bidali gintuzten jotzera. Horrez gainera, Bilboko Sorgintxulo gaztetxean, Eskoriatzako gaztetxearen bigarren urteurrenean, San Juanetan txosnetan eta Biona tabernan jo dugu.

Taldeko kideek musika gustu antzekoak dituzue?



OZEN

“Hainbat aukera aztertu ditugu, eta diskoa Mikel Anestesiarekin grabatuko dugu”.

Antzerakoak. Nork bere preferentziak ditu, baina guztiok 80ko hamarkadako rockarekin eta hard-rockarekin bat egiten dugu. Hori da gure taldearen musika oinarria, beste ñabardura batzuk ditugun arren. Gure kantuek melodia handia dute. Zeinek egiten ditu hitzak?

“Kantuak grabatu ostean, diskoa atera gura dugu. Inork ez badu kaleratzen, guk egingo dugu”.

Julenek egiten ditu. Euskaraz idazten ditu. Lehen errebindikatzaileagoak ziren, eta gaur egungoak orokorrak dira: maitasuna, harremanak, drogak... Grabatzeko asmoa duzue... Bai, diskoa grabatu gura dugu. Hainbat aukera aztertu ditugu, eta azkenean Mikel Anes-

“Hitzak eta musika Julenek idazten ditu. Gainontzeko moldaketak egiten ditugu”.

tesiarekin grabatu behar dugu. Angerrek berarekin grabatu zuen eta badakigu lana zelan egiten duen. 13 kantu dauzkagu prestatuta. Grabazio hori hainbat lehiaketetara eta diskoetxetara bidali gura dugu. Inork ez badigu laguntzen, guk geuk kaleratuko dugu disko hori.

ARRASATE PRESS Egubakoitza / 2004ko uztailaren 16a


E.TXO!

ZAHAR BERRIK ERAGILE BAT BEHAR DU
Zahar Berrik, euskaldun berriei euskara praktikatzen ematen dizkien taldeak, eragile bat behar du eguneko lau orduko lana egiteko. Derrigorrezkoa izango da euskara maila ona izatea, jendearekin harremanak egiteko erraztasuna izatea eta herrikoa edo ingurukoa izatea. Bidali curriculum-a AEDra, uztailaren 17a aurretik (Pablo Uranga 4).

BEGIRALE IKASTAROA TXATXILIPURDIN
Txatxilipurdin begirale ikastaroa antolatuta du. Urritik ekainera bitartean egingo dute, zapatuetan. Derrigorrezkoa izango da 18 urte baino gehiago izatea edo 2005ean betetzea. Interesatuak 300 euro eta aterpetzeko gastuak ordaindu beharko dituzte.

UDALEKU IREKIAK BIDEAN ESKURATU
Txatxilipurdin udaleku irekietako irudiak bideoan, VHS eta DVD formatuetan, jasoko ditu. Irailean eskuratzeko moduan egongo dira. Interesatuak jo dezatela elkartera informazio gehiagoren bila.

MUNDUKO GAZTEEN TOPAKETA
Abuztuaren 8tik 14ra bitartean, Munduko Gazteen Topaketa egingo dute Bartzelonako Forumean. Egonaldiaren prezioa 200 euro da, baina Arrasateko Udalak 50 euroko dirulaguntza ematen die herriko gazteei. Interesatuak astelehena aurretik izena eman beharko dute honako webgunean: www.festivalmundialjovenut.org. Behin apuntatuta, gazteek Gazte Bulegora jo beharko dute dirulaguntza hori eskuratzeko.

 **Txitxinpe**

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

 **EGUZKIGRAF**

inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA

arbolapeta



arrasate

beinke

 **Gorka**

ileapaindegia
peluqueria

Orduetgia:
Astelenehik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferreries 35 - 943 77 13 78

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Kalean aitona-amona ugari ikusten ditugu bilobak paseatzen.

Gero eta aitona-amona gehiagok hartzen du bilobak zaintzeko ardura

IKER BARANDIARAN

Gaur egun, gure inguruan, geroago eta aitona-amona gehiagok zaintzen dituzte bilobak. Bikote askotan biak lanean daude, eta aitona-amonek izugarriko mesedea egiten diete. Beste batzuek, berriz, umeak haurtzaindegira eramaten dituzte edo lagunen bat kontratatzen dute umeak zain ditzan. Badira, baita ere, umea zaintzeko lana uzten dutenak edo denbora laburragoa lan egiten dutenak.

Guk bilobak zaintzen dituzten aitona-amona batzuek gura dugu, eurek horren gainean zer iritzi duten jakiteko. Gehienek euren seme-alabei laguntzarren egiten dute; beste batzuek zahartu artean lagungarri izan gura dute eta erronka da euren laguntza; eta beste askok umei laguntzarren, edozer egingo lukete.

Guraso batzuek argi dute ez dutela lotura handirik gura. Horregatik, euren seme-alabei esaten diete umeak eurenak ez direla eta kasu berezietan lagun-

tza behar badute eskatzeko, baina bestela aitona-amonak lasai uzteko. Pedrok eta Arantzak, esaterako, sei biloba dituzte. Baina euren seme-alabek oso argi dute laguntza oso konkretua behar dutenean bakarrik jo behar dutela aitona-amonengana. Gurasoek ez diete gainkargarik eman gura.

Ezinbestekoa ala gehiegizkoa?

Iraganean bikote askotan umea izanez gero, emakumeak lana uzten zuen. Oraindik ere bada horretarako aukerarik, baina gaur egun bikote gehienek —ez guztiek— lanean jarraitzen dute. Batzuek umeak haurtzaindegira eramaten dituzte, beste batzuek lagunen bat kontratatzen dute, eta gehienek aitona-amonei uzten dizkiete. Laguntza hori gehiegizkoa da?

Pilarrek eta Joxek hilabete gutxiko bi biloba dituzte eta sasoi batzuetan, seme-alabak lan askorekin daudenean, euren kargu egiten dira goizetik arratsaldera arte. Uda ostean, gurasoek umea haurtzaindegira eramanean gura dute, baina aitona-amonek horren pena dute.

Anderrek eta Amaiak hilabete gutxiko umea dute. Saiatzen dira umea aitona-amonei ez uzten, gainkargarik ez emateko. Uztailan, amak lana utzi du txikiarekin denbora luzeagoa egoteko. Oporren ostean, haurtzaindegira eramango dute.

Jose Mariren eta Rafiren alabak lan egiten du, eta aitona-amonek goizean neskatilatxoak paseatzen ateratzen dute. Bazkalostean ere etxean izaten dute, ama bueltatu artean. Ahal duten bitartean, umea zaindu gura dute, eta gurago lukete haurtzaindegira eramango ez balute. Hala ere, argi dute erabaki hori ez dutela eurek hartu behar.

Manolik alaba egunero laguntzen du bi ume txiki dauzkalako. Laguntza premian ikusten du.

LABUR

Eguaztenean, Debagoieneko erretiratuen gastronomia txapelketa egingo dute


Eguaztenean, Debagoieneko erretiratuen gastronomia txapelketa egingo dute Abaroa elkarteak. 16:30ean izango da, eta ibarrek hainbat erretiratutako esku hartuko dute. Honako elkarteak lagunak etorriko dira: Uribarri, Toki Argi, Basotxo (Aretxabaleta), Antzuola eta Abaroa, hain zuzen ere. Lehiakideek marmitakoa prestatu beharko dute.

Horrez gain, Abaroa elkarteari dagokionez, aditzera eman dute Portonovora (Galizia) joan gura dutenek elkarte bulegora joan daitezkeela txartela hartzeraz eta gainontzeko ordaintzeraz.

Gaurtik, egubakoitza, domekara bitartean, Santa Marinan jaiak ospatuko dituzte

Urtero moduan, uztailearen erdian Santa Marinan jaiak ospatuko dituzte. Horretarako, auzotarrek egitarau zabala antolatu dute, adin guztiendako aproposa. Erretiratuek ere lana gogor egin dute, eta hiru ekitaldi antolatu dituzte: bihar, zapatua, Mesedeetako Amaren elizan erretiratuen omenezko meza egingo dute, 13:00etan. Horren ostean, urteroko bazkaria egingo dute egoitza berean. Ezinbestekoa zen alde aurretik izena ematea auzoko Toki Argi elkarteak.


Horrez gain, atzo, eguena, hasita, astelehenera arte, Toki Argi elkarte eskulanetan dabilen erretiratuek ikasturtean egindako lanen erakusketa ipini dute.



Lizarralde, Gipuzkoako erretiratuen saria

Juan Luis Lizarralde arrasatearrak Gipuzkoako erretiratuen eta pentsionisten lehiaketako margolanen lehen saria eskuratu du. Lizarralde Leintz Gatzagako alderdi bat marraztu du, amaren eta amandarearen jaioterria delako; eta Donostian herri hori ezagutzera emateko. Iaz lehen saria eskuratu zuen Euskal-Nafarroako Erretiratuen Lehiaketan /I.B.

PUB HAIZEA



**Gambrinus
garagardotegia**


- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein lekutan dago irudiotan ikusten duzuen eskultura hori?
Arrastoa: laster itxi egin behar dute leku hori.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Coca Cola
12 latako packa

4,63€ 770 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IÑAKI IRIONDOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Iñaki!
Galderen erantzun zuzena:
Olarten.

ARRASATEKO HISTORIA


Joan den mendea eta irratiaren erabilera (I)

'NIRE HAURTZAROKO...' / VELEZ DE...

Joan den mendearen erdialdeko kontuekin jarraituz, sasoi hartan bazen arrasatear (eta bestelako) askorendako ezinbestekoa zen etxetresna elektriko bat: irratiak. Haren gaineko zenbait istorio kontatu ditu Josemari Velez de Mendizabalek bere liburuan:

"Irrati aparailua genuen etxetako elektragailu bakarrenetakoa eta horren kontsumoa ez zen handia. Lisakinak, artean, burdinazkoak genituen, gehienetan U.C. marka zeramatenak, neurri zein eite diferentekoak. Baziren fraketarako egokiak; eta alkan-doretarakoak ere bai, maukak edo idunekoak lisatzeko tipo desberdinak erabiltzen zirelarik. Hau da, aukera zabala etxekoandreek zutena.

Irratia aipatu dut eta, beste kapitulu batean diodan bezala, haren ondoan ematen genituen ordu luzeak, huraxe baitzen albiste eta denbora-pasarako biderik zuzenetakoa. Merkatal iragar-kietako mezuak uhinen bidez iristen zitzaizkigun: Okal, Coca-Cola edo Abrotano Macho ile-hazgarriaren nolokotasun magikoak... Gure heroi batzuen abenturak ere bai: Diego Valor, etorkizune-



IKER BARANDIARAN

Sasoi hartako lisakinak, artean, burdinazkoak izaten ziren, gehienak U.C. markakoak.

rako pilotua! Baina horrezaz aparte, sendi askotan fenomeno erabatekoa ematen zen irratiarekin: espainiarrak ez izatearen sentimendua aparailuaren ondoan hazi zitzaigula pentsatu dut sarri. Diktaduraren hatzaparra hain luze eta beldurgarria izanik, kei-

'Cara al sol'
famatuaren musika
egilea Juan
Telleria zegamarra
izan zen

nuak ziren etxean eta, batez ere, kalean jendeak erabilitako hizkera bitxia. Gerrako oroitzapenak freskoak artean, nekez ausartzen ziren gurasoak, inondik antzematen ez genuen beste "aberriaz" guri umeoi hitz egitera. Baina irratiak orduoro helarazten zигun

zorioneko *Parte hablado* harekin zetorren doinua hasi bezain laster, nagusiengandik ikasitako ariketa bati ekin behar zion aparailutik hurbilen zegoenak: bolumena itzali behar zuen. Musika hura ez zen gurea! Ikurrin ezkutuak eta gainerako sinbologia abertzalearen lehen izpiak beranduagoak ditugu.

Ba al daki irakurleak, albistegi frankistetako musika bolada hark egundoko irabaziak ekarri zizkiela jesuitei? Nemesio Otaño jesuita eta musikazale azkoitiarrak erregistratu zuen, jesuiten izenean, doinu hura —1939ko ekainean—, *La generala. Toque de guerra de la infantería española* titulupean. 1939tik 1975era arte, *Sociedad General de Autores* elkartearen egileen eskubideengatik gehien kobratu zuen pieza musikala horixe izan zen. Ezin daiteke esan, beraz, euskaldunak parafernalia faxistan arrotz izan zirenik, areago kontuan badugu *Cara al sol* famatuaren musika egilea Juan Telleria zegamarra izan zela, eta konposizio egileak Jose Antonio Primo de Rivera, Sanchez Mazas, Agustin de Foxa eta beste batzuekin... Or Kompon jatetxe madrildarrean bil-tzen zenean sortu zuela".

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko uztailaren 17a / 117. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Udal zerbitzuak esleitzeko jardunean segitzen du Aramaioko Udalak

UBANE MADERA

Udal zerbitzuen adjudikazioa aztertzen segitzen dabil Udala. Horren ondorioz, besteak beste, kiroldegia itxita segituko du orainoz. Bestelako zerbitzuen artean, berriz, udal eraikinen eta kaleen garbiketa herriko enpresa bati esleitu dizkio Udalak.

Buru-belarri dabilta Udalean herriko zerbitzuak lehenbailehen esleitzeko. Hala adierazi digu Mertxe Mondragon alkateak. Kontua da oporrak baino lehen esleitu nahi dituztela zerbitzu guztiak. Edozelan ere, alkateak esan digunez, zenbait zerbitzu esleitura dituzte. Adibidez, udal-etxea, anbulatorioa, eskola eta kultura etxea garbitzeko lanak Aramaioko Garbiketarako izeneko enpresari eman dizkiote. Bide batez, eta kaleen garbiketa zeini eman erabakitzen duten bitartean, enpresa bera arduratuko da lan hori egiteaz.

Kale garbiketarekin batera, alkateak jakinarazi digu beste bi



Kiroldegia itxita segituko du harik eta kiroldegiaren kudeaketa esleitzen duten arte.

arlo ere bete barik daudela oraindik: lorezaintza eta uren biltegiaren mantenimendua. Alkateak esan digu dauden eskaintzak aztertzen dabilela Udala, tartean, herriko enprekin ere berba egin dutela,

baina azken horien eskaintzak Udalarenak baino dezente garestiagoak direla. Edozelan ere, oraindik ez dute erabakirik hartu.

Bestalde, kaleen garbiketa, kiroldegiaren kudeaketa, kontu-

gailuen irakurketa eta mezularitza zerbitzua esleitzeko moduan daudela gaineratu digu, baina erabaki barik dutela zeini esleitu lanok, herriko eskaintzak aztertu nahi dituztelako eta baita bes-

te enpresa batzuenak ere. Edozelan ere, esaterako, kiroldegia itxita dago adjudikazio kontu horrekin hasi zirenetik, eta jakinarazi digute hala segituko duela zerbitzua adjudikatu arte.

Enterramenduen zerbitzuen gainean ere galdetu diogu alkateari, eta esan digu zerbitzua ez dutela oraindik esleitu, baina, herrian horren beharra izanez gero, arduratuko direla lan hori betetzeaz.

Bukatzeko, esleipenen gai horrekin lotuta, zenbait herritar kexu dira herriko zerbitzuak herriko enpresek bete beharko lituzketela esanez, eta salatu dute Udalak kanpoko enpresa merkeagoak kontratatu gura dituela. Horren gainean, Mertxe Mondragonek adierazi digu behin eta berrito Udala badabilela ahalegina egiten herriko enpresak kontratatuzko, baina, haien eskaintzak Udalak egindakoak baino garestiagoak direla. Gaineratu digu zenbait kasutan Udalak bai merkatu dituela lanen prezioak, baina, beste batzuetan igo egin dituela, eta hala ere, herriko enpresa gutxi aurkeztu dela.

Arexolako plaza ahalik eta agudoen konponduko dutela adostu dute

U.M.


Arexolako plaza konpontzeko proiektua egingo dute udal teknikariek. Hala jakinarazi digu auzoko alkate Agustin Arrizabalagak. Bestalde, asteburuan jaiak ospatuko dituzte.

Pozik daude Arexolan, auzoko plaza konponduko dutelakoan. Auzo alkateak kontatu digunez, martitzenean horren gaineko batzarra egin zuten udal ordezkariekin eta erabaki zuten ahalik eta agudoen egingo dituztela auzoa berritzeko lanak. Kontua da bide luzea egin behar izaten dela halako erabaki bat hartzen denetik lanak hasi arte; hala, gauzak bide onetik badoaz, urria inguruan hasiko lirake lañean. Edozelan ere, auzota-

rrek eta Udalak ez dute erabateko adostasuna lortu egin beharreko lanen gainean. Auzotarrek eliza azpiko pareta konpondu nahi dute eta elizaren ostetik bidetxo bat egin. Auzoko lanak egiteko bideratuta dagoen dirua ahalik eta hobeen aprobetxatu nahi dute lanotarako. Baina esan bezala, oraindik ez dute adostasunik.

AUZOKO JAIK

Arexolatik aldendu barik, jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Besteak beste, gaur barikua, Agirre eta Zeberioarekin bertso-afaria izango dute; zapatuan meza eta gero Vermouth dantza; arratsaldean txaranga eta karta-jokoak eta gauean Gardokiren musika. Eta domekan, meza, dantzariak eta trikitalariak izango dira, besteak beste.



Guztia bide onetik joanez gero, plazako lanak urrian hasiko lirake.

LABUR

Euskararekin lotutako dirulaguntzak

Hil honen bukaeran amaituko da euskaltegiaren euskara ikas-teagatik dirulaguntza eskatzeko epea. Udalak matrikularen %80a ordaintzen die ikasleei baldin eta %80ko asistentzia ziurtatzen badute. Dirulaguntza eskatzeko, matrikulazioaren ziurtagiria eta asistentziaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira udaletxean.

Bestalde, Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzearen ere ematen ditu laguntzak Udalak. Kasu horretan, matrikularen eta egoitza kostearen %80ko laguntza ematen du. Laguntzok eskuratzen du, ordainagiria, programa eta parte-hartze ziurtagiria aurkeztu behar dira Udalean irailaren 15a baino lehen.

Datorren martitzenean amaituko dira udalekuak

UBANE MADERA

Datorren martitzenean bukatuko dira udalekuak. Neska-mutiko mordoa ibili dira, tartean, aramioarrak ez ziren batzuk ere. Hamar begiraleren gidaritzapean ibili dira. Oro har, balorazio positiboa egin dute.

Hilaren 7an hasi ziren neska-mutikoak udalekuetan eta makina bat ekintza egin dute harrezkeroztik: Zikin Eguna, Andra Marira txan-

goa gaua pasatzen... Eguaztenean eta gaur, Otxandioko igerilekuetara joateko asmoa zuten eta martitzenean, hilak 20, azken eguneko festa egingo dute.

Ana Muñoa ibili da arduradun lanak egiten. Bederatzi begirale izan ditu laguntzen. Zortzi ziren hasieran, baina 3 eta 4 urteko ume askok eman zuten izena; beste begirale bat hartu zuten. Izan ere, guztira, 87 ume ibili dira udalekuetan, batzuk kanpokoak, Aramaion familia dutenak.



JUDITH ARRIOLABENGOA

Argazkian, neska-mutikoak San Fermin eguna ospatzen.

LABUR

Datozen bi asteburuotan Otxandioko Santa Marina jaiak ospatuko dituzte

Datozen bi asteburuotan, aramioar askok hartuko du Otxandioko bidea, Santa Marina jaietan ibiltzeko asmoarekin. Han egongo diren ekitaldien artean, nabarmendu beharra dago bihar, zapatua, gaztetxoek Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak ikusteko aukera dutela, 19:30ean, Otxandioko plaza nagusian. Gauean, berriz, 23:00etan, Fermin Muguruza Kontrabanda eta Alaitz eta Maider taldeek goizaldera arteko dantzaldia egingo dute. Domekan, Santa Marina Egunean, herri kirolak izango dira 18:00etan hasita (aizkolariak eta harri-jasotzaileak) eta 23:45ean, Joselu Anaiak taldearen saioa. Eta astelehenean, besteak beste, bigarren mailako profesionalen pilota partiduak izango dira plazan: Capellan II.a eta Nikolas Oiaga eta Aldazabal IV.aren kontra.

Datorren asteburuari begira, berriz, aipagarria da barikuan, hilaren 23an, Floren Untzuetak, Rafael Untzaluk eta Ohiandi abesbatzak kontzertua egingo dutela elizan, 20:00etan. Eta 24an, aramioarrek plater tiroketan jardungo dutela 10:00etan hasita. Eta gauean, Erramun Martikorenak kontzertua egingo du. Horrez gainera, bestelako ekitaldiaren bat nabarmentzearren, adibidez, Otxandioko gazteriak makina bat ekitaldi antolatu ditu gaztetxerako: mahai-inguruak, antzerkia eta kantautoreen kontzertua, besteak beste.

Landa-guneetarako plastiko bilketa bi martitzen barru egingo dute berririo

Deba Garaia Mendi Nekazaritza Elkartetik zera gogorarazi digute: aurtengo plastiko biletaren kanpainaren barruan, laster etorriko direla baserriko plastikoak batzera gure bailarara. Hain zuzen ere, datorren uztailaren 27an, martitzena, etorriko dira. Hala, interesa duenak betiko lekuetan eta betiko orduan utzi beharko ditu bota gura dituen plastikoak.

BOTEPRONTOAN/ Mikel Kortabarria · Arragako auzo alkatea

“Auzotarrei esango nieke guztiok batera jarri eta hitz egiten hastea komeni dela”

Arraga bisitatu dugu orain goan; auzoaren gainean zer-bait gehiago jakin guran, ohi dugunez, auzo alkatearengana jo dugu. Hara zer kontatu digun Mikel Kortabarriak:

Jaiotzez ere arragarra zara?

Bai, aldameneko baserrian —Arraga Azpikoa— jaiotakoa eta orain Arraga Erdikoan bizi naiz.

Alkate zaren aurreneko aldia da? Zela aukeratzen duzue?

Bai, lehenengo aldia da. Gutxi gorabehera baserriko egiten da, txandaka.


Zein da zuen auzoaren egoera? Saneamendua...

Goiko baserri horren saneamendua —putzu beltza— guk geuk egin genuen, gure kontu. Horrez gain, badaude baserri batzuk nor bere putzu beltzarekin. Auzo gehienetan zentralizatuta egoten da.

Eta gasa?

Ez dugu, baina, ahaleginu ere ez gara egin. Inork ez du horren gainean ezer esaten. Errepidea konpontzeko eskatu da, baina... Halako azkeneko lanak orain dela 14 urte egin ziren, ura kloratu zuten orduan.

Ze behar ikusten duzu auzoan? Uste dut inportantea putzu beltzarena dela, eta poliki-



“Inportanteena putzu beltzarena da, eta poliki-poliki ea errepidea konpontzen dugun”

poliki ea errepidea konpontzen dugun apur bat. Konpondu eta zabaldu; izan ere, igarri egiten da sagardotegiaren eragina, lehen baino jende gehiago dabil; astean zehar ez, baina asteburuan jende gehiago ibiltzen da. Bestela, hemen ez dago egiteko gauza handirik. **Aurrera begira, zela ikusten duzu auzoaren etorkizuna?** Antzera samar. Ezin da etxerik egin, hau lur urbanizazina da. **Hortaz, esan genezake datozen urteotan Arraga gutxi aldatuko dela?**

Bai. Ez bada Egitamu Orokorra aldatzen, ez dago aukerarik etxerik egiteko.

Zenbat etxe daude orain?

Hemen daude lau, goian beste bi eta behean beste bat. Gutxi gorabehera 25 bizilagun gara auzoan.

Hortaz, lekua egon badago etxe-

ak eraikitzeko...

Bai, baina azkeneko egitamua egin zutenean, urbanizazina moduan utzi zuten.

Eta zuek pozik zaudete neurri horrekin?

Ahaleginu ginen partzela bat edo bi urbanizatzeko kategorian sartzen, baina ez zuten baimenik eman.

Urbanizazio aldetik-edo zer-bait falta zaizue?

Egin ahal izango zen zer-bait, plazatxo bat, adibidez, baina ez dugu berba egiteko denborarik izan. Orain, jaiak pasatutakoan akaso hasiko gara zer-bait egiten, baina egia esan, nik neuk ez dut behar handirik ikusten.

Ibarrarekin zela konpontzen zarete?

Ondo. Arraga Ibarratik nahiko gertu dago, eta gora eta behera ibiltzen gara etengabe.

Auzotarrei zer-bait esango zenieke?

Jarri eta hitz egiten hastea komeni dela. Urtean behin elkartzeko gara jaiak —San Pedroak— apur bat antolatzeke, baina jende gutxi garez, bestela ez gara elkartzeko. Gainera, denok egiten dugu lana kanpoan; hori ere igarri egiten da. Aukera gutxi dago hemen baserriko bizi izateko.

TELEFONO JAKINGARRIAK

| OSASUNA / LARRIALDIK | |
|---------------------------|--------------|
| Osasun etxea (txandak) | 945 44 53 40 |
| Batika | 945 44 50 03 |
| Udalekua | 945 44 50 16 |
| Ertzaintza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Gurutze Gorria (Legutio) | 945 45 52 52 |
| San Martin Eskola | 945 44 50 04 |
| Taxia eta autobusak | 945 44 50 33 |
| Udal kiroldegia | 945 44 53 35 |
| Postetxea | 945 44 50 83 |
| Zurako Eskualdea | 945 43 01 67 |
| Suhiltzaileak (Zubillaga) | 943 78 28 00 |

AUTOBUSORDUTEGIA

| ARRASATE | ARAMAIO | GASTEIZ |
|----------|---------|----------|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00* | 10:15 | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00* | 12:15* | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30* | 18:45 | |
| 20:30 | 20:45 | 21:25 |
| 21:00* | 21:15 | |
| GASTEIZ | ARAMAIO | ARRASATE |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:15 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15* | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:55 | 14:10 |
| 16:20 | 17:05 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 18:45* | 19:00 |
| 19:30 | 20:00 | 20:15 |

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute.

Auzoetako bizilagunei zuzendutakoak da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara:

629 54 59 23

OHARRAK

POSTAL LEHIAKETA

Txirritola Euskara Elkarteak I. Postal Lehiaketa antolatu du udako oporrei begira. Lehiaketaren helburua da jendea euskaraz idaztera bultzatzea; hala, lehiaketan parte hartzeko, abuztuaren 31ra arte postalak bidali behar dira elkartera. Gero, Txirritolak parte-hartzaile guztien artean landa-etxe batean egonaldia zozkatuko du. Honakoa da erabili beharreko helbidea: Kultura etxea, Nardeaga kalea z/g. 01160 Aramaio.

BERTSOLARI SAIOA

Gaur, barikua, Andere Arriolabengoa aramioarrrak Bizkaiko Ermua herrian bertso saioa izango du. Baldespina parkean izango da ekitaldia, 22:30ean.

BARIKUKO ZINEMA

El Señor de los Anillos filmaren aurreneko zatia emango dute gaur: *La comunidad del anillo*. Besteak beste, Elijah Wood, Ian McKellen eta Viggo Mortensen aktoreek fantasiako munduan murgilaraziko dituzte ikusleak, Peter Jacksonen gidaritzapean.

ERRETRATUZAHARRA

Beste final bat,
Pasajesen
kontra, Atotxan

Berriro ere Atotxa futbol zelaira joango gara asteko argazki zaharrarekin. Eta berriro ere Pasajes taldea izan zuen Mondrak aurkari argazkia atera ziotenean. Pentsatuko duzue Pasaia Arrasatetik dezente urrun geratzen dela elkarren aurka jokatzeko. Gauza da sasoi hartako ligan Zumaiatik hasita Beasain, Urretxu... honainoko taldeen kontra jokatzeko zuela Mondrak. Gipuzkoan bigarren maila moduko batean zeuden talde horiek. Eta finalen bat jokatzeko zutenean, askotan Realak Atotxa futbol zelaia uzten zien. Oraingo asteko argazkia 50eko hamarkadako dela uste du gure berriemaileak.

Honako hauek azaltzen dira argazkian, goian, ezkerretik hasita: *Tristan* masajista, Pedro Sologaistoa, Jesus Azkargorta *Monti*, Victor Baltzategi (atezaina zen, eta gure berriemailearen esanetan, ona, gainera) Eugenio, Jose Ramon Uribarren, Ignacio Cabello eta Paco Aspiazu. Eta behean, ezkerretik eskumara, honako hauek azaltzen dira: Berezibar *Txaparro*, Jesus Vitoria, Jose



Mari Guridi eta Luis Arregi.

Sasoi hartako bitxikeriaren bat aipatzearen, berriemaileak kontatu digu baloiak oso gogorrak izaten zirela, narru gogorrarekin egindakoak, eta gainera, euria egiten zuenean pisua hartzen zutela. Adibidez, ikusleek luze botatzeko eskatzen

zieten jokalariei, eta haiek ezin.

Beste anekdota bat ere kontatu digute: itxura denez, Arrasaten badago esaera bat: *Ormaiztegiko txakurra, alkantzau eta pasau*. Bada, behin Donostiara zihoazela autobusean, jende berria zegoen taldean eta Ormaiztegitik pasatzean beterranoek

esan zuten: "Han jak Ormaiztegiko txakurra!". Eta denak ibili omen ziren zoruen pare txakur berezi haren bila.

Argazkia: Centro de Accion Catolicako bilduma.
Informazioa: Eugenio Baltzategi.
Urtea: 50eko hamarkada.


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Larreako
etxeak egin
aurretik

Larreako etxebizitzak erosi ahal izateko baldintza batzuk bete behar ziren. Eta Udalak agindu zuen adjudikazioa egin aurretik etxe horiek erosteko eginda zeuden eskariak ikertzeko. Ikerketa egin eta gero, izena eman zuten 110 lagunetatik 23 kanpoan geratu ziren, ez ziztuzten-eta baldintza ekonomikoak betetzen; edo ordurako bazuten beste etxebizitzaren bat.



≈ 1991 Egun, Etxebide arduratzen da etxebizitza sozialen kudeaketaz, eta orain ere zorrotzak dira baldintzak eskatzeko orduan.



2004 Argazki zaharrean Larrea baserria ikusten da, oraindik zutik. Argazkiko plazak Usaetxe du izena, eta beheko plazak Larrea.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel.: 943 79 48 77 ARRASATE

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak




Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

OGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZURE AUTOAREN PIEZAK PUNTU-PUNTUAN



Giauto



San Andres 10 D • 943 77 30 10 • Arrasate • www.giauto.es

MUGARRI



Araba etorbidea z/g • 943 79 07 44 • Arrasate • www.mugarri.es

Udalaitz



Gipuzkoa etorbidea 36 • 943 71 18 70 • Arrasate

HYUNDAI
MENDARO AUTOAK

San Andres 10 D • 943 77 21 00 • Arrasate

KANPAZAR
FIAT *Alfa Romeo*

Bizkaia etorbidea z/g • 943 79 41 98 • Arrasate
Araba etorbidea z/g • 943 79 77 66 • Arrasate

CHAPIME
TAILERRAK



CITROËN

San Andres 5 • 943 79 45 22 • Arrasate

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26



10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora